



## Gerraosteko ikazkiñak

**B**este herri batzuetan letxe, **ikazkintzaik** zuztar sakonak euki zittuan gure artian denbora askuan. Hemen, gaiñera, beste leku batzuetan baiño gehixuago esango neuke. Horren arazoia bistan dago: ingurura begiratu besterik ezta-kogu, Oñatiko lurretan zenbat baso daguen konturaketako: pagaduiak, hariztuixak eta piñuduiak gehixentxuen, baiña badira artia, lizarra, korostixa, urkixa eta bestelako arbola-klasiak be.

Egur-ikatza egitteko, haritza, pagua, artia eta gaztaiña izaten ziran egogixenak. Oñati aldian lehenengo bixak dagoz gehixen, pagua batez be, artia askoz gutxiago, eta gaztaiña, gaitzak jota, zihero urrittu zan 1920tik aurrera. Ikazkiñen bezerorik onenak, barriz, burdiñagintzan ziharduten lantegixak ziran: **olak**, **errementerixak** eta **sutegixak**. Gure herrixan Olakua, Olalde eta Zubillagako ola klasikak ez ezik, fanderixia be egon zan Osin Urdiñen eta dozenaka errementari eta ultzezin kaliaz nahiz auzuetan.

Hau dala-eta, ikatz-premiña dezentia egongo zan Oñatin. Andarto Artixa, Arantzazu, Aloña-azpi, Olabarrieta eta Aurreko-mendixan **txondor ugari** ixuketan ziran ixa urtero. Lanbide horretan jardundako oñatiar banaka batzuk bizi dira oraindik. Goguan dogu, bestiak beste, **Kilometroak 1989**ko ibillaldixa ederketako, Asentzio ermita onduan txondorrak eta ikazkin-txabolixa zihatz eta dotore asko moldau zittuan ikazkin izandakuen taldia.

Baiña oñatiarren artian ofizio hau gutxiketan hasi zanian, Naparruatik etorri xakun ikazkin-pillia. Noiz izan zan hori? Ba, gerraosteko lehenengo hamarkadan. Orduan eskasidadia zan bazter guztietan eta ikatza edo beste erregeiren bat zuzenketako bihaleku galantak eukitten zittuain enpresak. Horregatik, egur-ikatzak estimaziño haundixa eukan burdiñiaren fundiziñora dedikaiten ziran fabriken artian. Oñatin bertan, arboledako **Mugarza**, **Ugarte** y **Cía** izeneko fundiziña balixau zan herrixan egin ddako egur-ikatza. **Garay** eta **Zubillagako Forjak** be bai.

Hala eta be, orduan hemen egositako ikatzik gehixenak Zumarraga aldera eruan zittuain. Izan be, urte hareittan indarttuaz oian **Esteban Orbeagoz** enpresiak izugarriko mogimendua jarri eben Arantzazu aldian. Orbeagozok Arantzazutik Urbixara bittarteko baso asko eukan erositta, eta, dakizuenez, pagaduixa da inguru horretan nagusi. Horko aberastasuna aprobetxaiteko, ofizio latz horretan ondo zailduttako gizakume-taldiki ekarri zittuain Naparruatik, **Ameskua** aldetik gehixen bat, hau da, Urbasa eta Lizarra arteko parajietatik.

Udabarrixan etorten ziran naparrok ikatza egittera, urdaixa eta babia aldian ekarreilla. Momentu batzuetan berreun ikazkiñetik gora jardun ei euen zeregin horretan. Uda-partian, garagarilletik agorrera, millaka ikatz-zakuren kario-aldixa izaten zan. Txondor-lekuetatik **Arantzazuko kargaderotara manduetan** edo astuetan jaisten zittuain. Inoiz hirurogei mando inguru ibi-lli ei ziran batera, gora eta behera, bakoitzak 30-40 kiloko lau zaku ekarriaz. Astuak gutxitxuago. Argazki honek ederki eraturritan be egon zan beste karga-leku bat. Kamioiak haraiño allegaiten ziran, zakuak kargau eta gero, Zumarragaraiño eruateko. Fotografixia 1945-1947 ingurukua izango da, akaso, urte horreittan egon zalako mogimendurik haundixena.

J. E.

Fotografixia Bitorrixako Iñaki Varonak itxi dosku eta argibidiak Enrique Otxoa eta Milagros Letamendiren bidez eskuratu dittugu. Eskerrik asko dano!